

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Enplegu publikoaren 2022ko eskaintza

Bat etorri Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 24. artikuluan xedatutakoarekin, jakinarazten da honako ebazpen hau eman dela, alkatetzaren 2022ko azaroaren 15eko dekretu baten bidez:

Alkatetza honek ekitaldi honetako enplegu publikoaren eskaintza onesteko espedientea hastea agindu zuen.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.g) 91.1 artikuluan eta Toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 128.1) artikuluan xedatutakoaren arabera, toki erakundeek, aurrekontua onesten denetik hilabeteko epean, enplegu publikoaren eskaintza onetsi eta argitaratu behar dute, funtzio publikoari buruzko Estatuko oinarritzko legeriara eta Estatuko oinarritzko araudia garatzeko araudi bidez ezartzen diren irizpideetara egokituta, gainerako administrazio publikoen enplegu eskaintzekin behar bezala koordinatzeko.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 70. artikulua ezartzen du langile berriak sartzaren bidez bete behar diren eta aurrekontu zuzkidura duten giza baliabideen beharrianak enplegu publikoaren eskaintzaren bidez edo langile beharrak betetzeko antzeko kudeaketa tresnaren baten bidez bete behar direla. Horrek esan nahi du konprometitutako lanpostuetarako hautaketa prozesuetarako deialdia egin behar dela, eta gehienez ere ehuneko 10 gehigarri bat deitu ahal dela, eta deialdirako gehieneko epea ezarri behar dela.

Enplegu publikoaren eskaintza hiru urteko epe luzaezinean egin behar da. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikulua ere antzeko zerbait xedatzen du. Horren arabera, Administrazio Publiko bakoitzean dauden langileekin bete ezin diren eta aurrekontu zuzkidura duten giza baliabideen beharrianak enplegu publikoaren eskaintzaren bidez bete behar dira.

Proposamenak betetzen ditu 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak enplegu publikoaren eskaintzei dagokien ezarritako mugak.

Udalbatzak, 2022ko irailaren 20an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion aurrekontu plantillaren eta lanpostuen zerrendaren aldaketari, eta erabaki hori behin betiko onetsi zuen 2022ko urriaren 25ean.

Udal kontuhartzailetak proposamenaren aldeko ebazpena eman du.

Proposamena ordezkartza handieneko erakunde sindikalekin negoziatu zen, 2022ko azaroaren 4an, 13:30ean, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 36.3, 37.1.c) eta 37.1.l) artikuluetan xedatutakoa aplikatuz.

Enplegu publikoaren eskaintza onestea alkatetza honi dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Onestea 2022ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintza, honako lanpostu hauena:

1. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK:

IZENA	ESKALA ETA AZPIESKALA	TALDEA	PLAZAK	HAUTAKETA SISTEMA	BETETZEKO ERA
Bulego orokorreko administraria	AO/AD	C1	1	OPOSIZIO-LEHIAKETA	BARNE SUSTAPENA
Behargina	EA/ZE	E	1	OPOSIZIO-LEHIAKETA	LEHIAKETA

BIGARRENA. Enplegu publikoaren eskaintza argitaratzea udalaren egoitza elektronikoan, iragarki taulan eta ALHAOn, guztiek jakin dezaten eta interesdunek aukera izan dezaten bidezko jotzen dituzten errekurtsoak jartzeko. Horren laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

HIRUGARRENA. Ebazpen honen aurka, interesdunek, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote alkatetzari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen duten egunaren hurrengotik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluen arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabakiz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi edo errekurtso hori isilbidez ezetsi arte. Horrez gainera, interesdunek egokitzen jotzen duten beste edozein errekurtso jarri ahal izango dute.

Horrez gain, egoki irizten den beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Santikurutze Kanpezu, 2022ko azaroaren 16a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO